**KIROLA: MAIDER UNDA, EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO BORROKA LIBREAN TXAPELDUNA /11**

*"Konpetitzea oso gogorra da. Konpetitzeari lagatakoan hasi nintzen ziklismoaz gozatzen"*

**KOLDO LAMIKIZ /11**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 14. zenbakia

2001eko martxoaren 16a • II. urtea • DOAN BANATZEKOA




**Goienka2a**

**Bailarako hiru bertsolari txapelaren bila**

**HERRIZ HERRI**

**Aurrekontuak onartu ditu Bergarako udalbatzak EAJ, EA eta PSE-EEren botoekin /10**

**JOXEMARI MUXIKA**

*"Herri aldizkariak sarean jarriz, euskarazko produkzioa jendearen eskura ipini nahi dugu"* **/9**

**GOIENA EGITASMOAREKIN BAT EGIN DUTE BAILARAKO SEI UDALEK**

# Euskarazko hedabideen aldeko hitzarmena Aramaion

- *Bailarako sei udal, Goienako bazkide laguntzaile*
- *Bergara, Elgeta eta Oñatiko udalek ez dute erabakirik hartu*
- *GOITB, Goienkaria eta aldizkariak diruz lagunduko dituzte*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak hitzarmena sinatu zuen atzo, eguena, Debagoieneko bost Udalekin (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga) eta Aramaiokoarekin, Aramaioko udaletxean. Arabako herria izanda, esanguraberezia du hitzarmen hau Aramaion egiteak. Sinatu zuten udalek konpromisoa hartu zuten Goienari diruz laguntzeko eta aldi berean, kooperatibako bazkide laguntzaile bihurtuko dira. **/3**



Bailarako alkateak eta Goienako ordezkariak atzo Aramaion egindako ekitaldian.

ENEKO AZKARATE

**OÑATI**

## Bidebarrietako etxebizitzak eguaztenean zozkatatuko dituzte

Eguaztenean, martxoak 21, zozkatatuko dituzte Bidebarrietako etxebizitza sozialak. Santa Ana antzokian egingo dute arratsaldeko 16:30ean. 93 pertsona sartuko dira zozketan. Guztira 23 dira Bidebarrietan egin dituzten etxebizitzak. Horietatik 12 zozkatatuko dira; gainerakoak Oñatiko Udalaren esku geratuko dira, behar handiena dutenen artean alokairuan jartzeko. **/5**

**ARRASATE**

## Etxebizitzen gaineko web orria sortu du Eskola Politeknikoak

MUk ekimen berria jarri du abian: etxebizitza beharra dutenendako web orria. Hortaz, etxebizitza edo logela bat eskaini zein eskatu nahi duenak hortxe jarri dezake bere iragarkia. Etxebizitzak alokatzeko aukeraz gain, Eskola Politeknikoak, etxebizitzak adineko pertsonekin konpartitzeko aukera ere ematen du web orri horretan. **/4**


Gure Bailarako Patxarana

ARBASO®
PATXARANA

BERTAKOA, NATURALA

Nafarroa etorbidea, 23 M1 pabilioia • ARRASATE • 943 79 10 69


## Irakasle Eskolak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu aurten

Atzo, eguena, aurkeztu zituzten Eskoriatzako Irakasle Eskolaren (gaur egun Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) 25. urteurrena ospatzeko, udaberrian zehar antolatuko dituzten ekitaldiak. Era askotako jardunaldi eta hitzaldiak, eta ikasle eta irakasle izandakoen elkarretaratzea antolatuko dituzte, besteak beste. **/2-3**




Humanitate Fakultateko buruek aurkeztu zituzten ekitaldiok.

ENEKO AZKARATE


HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6-8 • IRITZIA/7 • KIROLA/10-11 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • TELEBISTA/23

# 25 urteko eskola

## *Eskoriatzako Irakasle Eskolaren zilarrezko ezteiak*

J.A.M

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, gaur egun Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko atal bat, 25 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, egitarau oparoa prestatu dute udaberri honetarako.

**SALAMANCARAINO JOAN BEHAR**

Franco hilda, baina frankismoa artean bizirik zegoen garaian jaio zen Eskoriatzako Irakasle Eskola, 1976an. Ikastolak indarra hartzen ari ziren eta maisu-maistra euskaldunak falta ziren nonahi.

Hezibide (Leintz bailarako hezkuntza kooperatibak batzen zituen elkartea) arduratuta zebilen horrekin, eta hainbat ahalegin egin zituen egoera bideratzeko: Baina alferrik. On Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain ohiak lagundu zien. Salamancako Unibertsitate Pontifikaleko errektorearekin jarri zituen harremanetan, gaur egun Iruñeko gotzaina den Fernando Sebastianekin, hain zuzen ere. Hari esker, Salamancako Unibertsitate Pontifikaleko gela moduan hasi zen eskolak ematen Eskoriatzako Irakasle Eskola.

**FELIX ORMAETXEA, ZUZENDARI**

Nork abiatuko zuen, baina, eskola berria? Eta non? Felix Ormaetxeari eman zion ardura hori Hezibidek. Horrek Jesus Garmendia atera zuen Arrasateko Hizkuntza Eskolatik eta Juanjo Otaño Hezibidetik. Leku bat behar eta, Jabier Retegik Eskoriatzako eraikin amaitu bako bat begiz jo zuen, biatoristek horrela utzitakoa. Ikastetxe izateko asmoarekin egin zuten, baina amaitu aurretik konturatu ziren ez zutela ikaslerik, bokazioak izugarri jaitsi baitziren.

Hezibidek biatoristen zorra ordaindu eta, trukean, eraikina jaso zuen. Eskoriatzako Irakasle Eskolak bazuen etxea. Egokitu besterik ez zen behar. Gastuak ordaintzeko dirua kooperatibetatik eta Juanito Zelaiaren poltsikotik iritsi zen. Azken honek bost milioi pezeta eman zizkion Setieni, eta horretan erabili ziren.

**ONESPEN OFIZIALA**

Eskola abiatu eta handik bi urtera, Espainiako Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa plana, baina aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU-UPV izango zenari) atxikita. Horretan, Martin Mateos errektorearen laguntza handia izan zuten. Mondragon Unibertsitatearen barruan sartu bitartean, beraz, EHUn segituko zuten.

EHUrekiko harremanak ez ziren beti nahi bezain onak izan. Une batetik aurrera, eskola sendotu eta gero, konpetentzia moduan ikusten zuten han eta, zenbait gauza lortzeko —Hezkuntza Berezia adibidez— eragozpen handiak ipini zituzten.

**1.500 IRAKASLE**

Maisu-maistra euskaldunak falta ziren eta eskolak 1.500 jarri ditu merkatuan urte hauetan, ondo prestatuta. Ez da mugatu, hala ere, irakasleak sortzera. Programa bereziak sortu izan ditu, gizartean ikusten zituzten premiei modu egokian erantzuteko. Milatik gora irakasle ari zirela irakasten titulurik barik? Egitasmo berezia sortu eta 700 irakasleri aukera eman zien beren egoera konpontzeko. Eusko Jaurlaritzak egitasmo berezia behar zuela funtzionarioen azken hizkuntza eskakizunak prestatzeko? Beste horrenbeste. Irakasleak egunean jarri behar zituztela? Berdin.

Dohain berezia izan du eskolak gizartearen premiak antzeman eta erantzun egokiak emateko. Dohain horrek salbatu zuen ia K.O. zegoenean. 1990eko hamarkadan irakasleen premia asetu ostean, izugarri jaitsi zen ikasle kopurua. Hezkuntza Berezia sortzeak konpondu zuen egoera.

**ESKOLA, ARGITARATZAILE**

Euskal eskolak era guztietako premiak izan ditu: giza arlokoak eta materialak. Hori ikusita, Eskoriatzako Irakasle Eskolak esparru berriak ireki zituen. 1988tik aurrera, adibidez, bideo didaktikoak egiteari ekin zion. Ikus-entzunezkoen atala sortu zuen horrela, geroago Ihardun Multimedia enpresa izango zena. Ikasliburuak ere falta zirela eta, dozena bat liburu argitaratu zituen, "Esaizu" izeneko bilduma eta hiztegi bat barne.

**MONDRAGON UNIBERTSITATEAN**

1997. urtea mugarria izan zen Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean integratu zen, MUren Eskoriatzako campusean.

Harrezkero zabaldu egin da, nabarmen, lehengo Irakasle Eskolaren zerumuga. Lizentzia berriak sortu dira (Humanitateak-Enpresa eta Psikopedagogia) eta master bat ere bai (Enpresa Proiektuen Zuzendaritza). Ikasleak ere ugaldu egin dituzte izugarri: gaur egun 750 ikasle ari dira Eskoriatzan.

Ondorioz, hasierako eraikina —Dorleta eraikina— txiki geratu zen eta Gizabidea fundazioak XVII. mendeko San Viator eraikin dotorea erosi behar izan zuen ondoan.









Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 25 urte hauetako jarduna gogora ekartzeko unea da. Udaberri oparoa izango da aurtengoa Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearentzat. Izan ere, Irakasle Eskolaren zilarrezko ezteiak ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen asteotarako: hitzaldiak, jardunaldiak... Horiek denak atzo, eguena, aurkeztu zituzten eskolako arduradunek eta irakasleek Fakultatean bertan.

## Ospakizunak

• **Martxoaren 29-30ean,** Jardunaldiak: "Mundu Eleanitza" eta "Hezkuntzaren Funtzio Soziala". Felix Martí, Kataluniako Unesco Etxearen lehendakaria etorriko da. Baita Madril, Bartzelona, Andorra eta Aostako espezialistak ere, Euskal Herrikoekin batera.

• **Martxoaren 30ean,** ekitaldi berezia egingo dute. 18:30ean, omenaldia egingo diete Irakasle Eskolak izan zituen lehen lehendakari (Juan Mari Otaegi), lehen zuzendari (Felix Ormaetxea) eta lehen langile erretiratuari (Mertxe Bolinaga).

• **Apirilaren 5ean,** Jardunaldiak: "Erlijioa eta XXI. mendea". Punta-puntako bi hizlari izango dira: Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain ohia eta Frantziako Gaillot gotzain ospetsua.

• **Maiatzaren 10-11n,** Jardunaldiak: "Etika eta Enpresa: Enpresa Proiektu Etikoa eta Etika Proiektu Enpresariala". Federico Mayor Zaragoza UNESCOko lehendakari ohiak hartuko du parte. Jon Sarasuak eta Lankiko partaideek "Testigantza" izeneko proiektuaren berri emango dute.

• **Maiatzaren 26an,** Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasle eta irakasle ohien elkarretaratzea egingo dute.

# “Ilusio izugarria genuen, baina baliabiderik ez”

**Jabier Retegik esan zionean bera izango zela Irakasle Eskolako lehen zuzendaria, Felix Ormaetxeak 38 urte zituen. Hezibide erabat utzi barik, buru-belarri hasi zen proiektu berrian. Hiru urte egin zituen zuzendari lanetan, baina harrezkero oso hurbiletik jarraitu izan du Irakasle Eskolaren bilakaera. Martxoaren 30ean omenaldi beroa jasoko du Juan Mari Otaegi eta Mertxe Bolinagarekin batera.**



FELIX ORMAETXEA

Irakasle Eskolako lehen zuzendaria

**“Garbi genuen hasieratik maisu-maistra euskaldunak sortu behar genituela”**

**—Hasiera zaila izan zen?**

—Ez pentsa oso jakitun ginenik proiektuak zuen garrantziaz. Ilusio izugarria genuen, baina baliabiderik ez. Hara, gauza bat esango dizut: gaur dakigun guztiarekin berriro hutsetik hasi beharko bagina, ez ginateke hasiko.

**—Nondik atera zenituen irakasleak?**

—Ahal nuen lekuetatik: Hezibide, Almen, Eskola Politeknikoa, San Viator, Arrasateko Hizkuntza Eskolatik... lizentziadunak zituzten ikastetxeetatik. Eta denak orduka. Hasteko, Jesus Garmendia eta Juanjo Otaño hartu genituen, lehena Arrasateko Hizkuntza Eskolatik eta bigarrena Hezibidetik. Hortik aurrera, poliki-poliki sendotuz joan zen irakasle taldea.

**—Hasieratik datorkio Irakasle Eskolari euskararekiko konpromisoa?**

—Bai. Erabateko apustua izan zen hura. Izan ere, garbi genuen hasieratik maisu-maistra euskaldunak sortu behar genituela. Irakasleak euskaldunak behar genituen eta baita ikasleak ere. Hauek, jakina, ez zekiten berdin euskara eta, horregatik, bizpahiru talde egiten genituen, premia larriagoa zuten ikasleei laguntza berezia emateko. Ezinbestean gaztelaniaz eman behar ziren irakasgaiez kanpo, beste guztia euskaraz ematen genuen, nahiz eta ikasliburuirik izan ez euskaraz.

**—Nola ikusten duzu eskolak egin duen ibilbidea?**

—Une larriak pasatu ditu eskolak, baina oparotasunean eta estuasunean ere, oso koherentea izan da hasierako helburuekin. Jende aparta izan du, aurrera egiteko asmo sendoa erakutsi eta premia berrietara egokitzen jakin izan duena. Jesus Garmendiak zerikusi handia izan du horrekin, benetako lidergoa erakutsi du eta.

## 25 urteko bide oparoa

| | |
|---|---|
| 1976 | **Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen.** Hasieran Salamancako Unibertsitate Pontifikalaren gela bat moduan. |
| 1978 | **Onespen ofiziala.** Espainiako Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa plana, Bilboko Unibertsitateari (gero EHU-UPV) atxikita. |
| 1981 | **Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa.** Ikastoletan edo herri eskoletan euskara irakasten titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua. |
| 1984 | **Haurren gaineko dokumentazio zentroa.** Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen eskola. |
| 1985 | **Irakasleen birgaitze programa,** Hezkuntza Sailarekin batera. |
| 1988 | **Bideo didaktikoak.** “Piti gaztagile” egin zuten, helburu didaktikoekin egindako bideo bilduma baten lehen alea. |
| 1990 | **Euskararen normalizazioa administrazioan.** Ikastaro bereziak antolatu zituzten, euskal administrazioko funtzionarioen hizkuntza eskakizunik jasoenak lantzeko. |
| 1992 | **Ikasliburugintza.** Dozena bat ikasliburu argitaratu zituen eskolak. Lehena “Esaizu 1” izenekoa. |
| 1996 | **Hezkuntza Berezia.** Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrei irakasteko espezialitatea sortu zuten. |
| 1997 | **MUren Humanitate Fakultatea.** Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. |
| | **Humanitateak-Enpresa lizentzia** ematen hasi ziren. |
| 1999 | **Eraikin berria.** Gizabidea fundazioak alboko S. Viator eraikina (XVII. mendea) erosi zuen Humanitate Fakultatearentzat. |
| | **Lehen masterra.** “Enpresa Proiektuen Zuzendaritza” izeneko masterra sortu zuten. |
| 2000 | **Psikopedagogia lizentzia.** Bigarren zikloko lizentzia, gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko. |

## Bailaran, labur

### GOIENA

**Debagoieneko sei udalek hitzarmena sinatu dute bazkide laguntzaile izateko**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak hitzarmena sinatu zuen atzo, eguena, Debagoieneko bost udalekin (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga) eta Aramaiokoarekin, Aramaioko udaletxean. Arabako herria izanda, esangura berezia du hitzarmen hau Aramaion egiteak. Hitzarmena esandako herrietako alkateek eta Goiena kooperatibako agintariek sinatu zuten. Hitzarmenaren bidez, sinatu duten Udalek konpromisoa hartu dute Goienari diruz laguntzeko eta, aldi berean, kooperatiba berriko bazkide laguntzaile bihurtu dira. Aurrerantzean, bada, ordezkaritza izango dute Goienaren agințe organoetan. Goiena kooperatiba euskarazko herri komunikabideetan dagoen talderik sendoena bihurtu da. Gaur egun, 40 langile ditu eta 235.000.000 pezetako aurrekontua. /ENEKO AZKARATE

### ATXILOKETA

**Xabier Arregi gaztea kartzelatzeko agindua eman du epaileak**

Joan zen domekan, Xabier Arregi "Txapi", 24 urteko bergararra atxilotu zuen Polizia Nazionalak, Ibargarai kaleko aparkaleku baten zela, 22:30 aldera. Eguazten arratsaldera arte inkomunikatuta eduki zuten eta 17:30 aldera Madrilgo Entzutegi Nazionalean deklaratu zuen. Haikako kide izatea leporatu zion epaileak eta Xabier Arregi kartzelatzea agindua eman zuen. Martitzenean, oraindik ere Arregiren berririk ez zegoela, prentsaurrekoa eman zuten herriko hainbat taldek. Haika, LAB, Gaztetxea, EH, Gestorak, EHE, IA, Senideak eta, oro har prentsaurrekoan bildutako gazteriak, “leporatu diotena gezurra” dela esan zuten, eta joan den astean “Garzonek Espainiako poliziaren bidez, Haikaren aurkako muntai polizi-judizial-mediatikoan” kokatu dute Xabier Arregiren atxiloketa. Operazio osoa "garzonkeria" dela gaineratu zuten. Bestalde, astean zehar hainbat kale agerraldi egin dituzte Bergaran Xabier Arregi aske lagatzea eskatuz. Eguazteneko osoko bilkuran, “Txapi”ren askatasuna eskatzeko mozioa aurkeztu zuen EHk. Hala ere, ez zuten onartu. Bai, aldiz, EAJ-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa. Testuak, Garzonen jokabidea zalantzan jartzen du eta baita kale borroka gaitzetsi ere. /MONIKA BELASTEGI

### ENPRESAK

**Bergarako GKN Lazpiur enpresari “Gustu on” saria eman dio Jaurlaritzak**

GKN enpresari “Gustu on” saria eman dio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak. Industria, merkataritza eta turismo arloetan gustu onagatik nabarmendu diren enpresa edo dendek egindako ahalegina aitortzea da sari honen helburua. GKNk Itziarren, Zumaian, Legazpin eta Bergaran ditu lantegiak. Azken hori, Labegaraietako industrialdean kokatuta dago eta Bergarako beste enpresa batekin, Lazpiur Sozietate Anonimoarekin elkarlanean sortutakoa da. GKN-Lazpiur izenekoak, orain dela urtebete ingurutik dihardu lanean. /E.A.

### HEZKUNTZA

**Ikazoka, hezkuntza eta berrikuntza azoka egingo dute asteburuan Durangon**

Atzotik domekara bitartean Ikazoka, hezkuntza eta berrikuntza azoka izango dute Durangon, Euskal Liburu eta Diskoen Azoka egiten zuten toki berean. Ikazoka iazko maiatzean egin zuten lehen aldiz eta Euskal Herriko hezkuntza eskaintzarik garrantzitsuenak bildu nahi ditu bertan. Horretaz gain, irakaskuntzarekin zerikusia duten enpresa sektore guztien topagune ere izan nahi du. Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea bertan izango dira. Horiekin batera, baita Ikastolen Elkartea ere. Ikazokan hezkuntzaren gaineko azken berrikuntzak ikusi ahal izango ditugu: argitalpenak, informatika, didaktika... /E.A.

**ARRASATE** ESKOLA POLITEKNIKOA

# Eskola Politeknikoak etxebizitzen gaineko web orria sortu du

*Etxebizitza bila dabilenarendako abian jarritako zerbitzua da*

UBANE MADERA

Mondragon Unibertsitateak ekimen berria jarri du abian: etxebizitza beharra dutenendako web orria. Hortaz, etxebizitza edo logela bat eskaini zein eskatu nahi duenak hortxe jarri dezake bere iragarkia. Iñaki Madinabeitiak, ekimenaren arduradunak, adierazitakoaren arabera, "Unibertsitateko ikasleei zerbitzua eman nahian kaleratu dugu web orria, baina, ikasle ez direnendako ere baliagarria izan daiteke, etxebizitza bila dabilen edozeinendako, eta noski, bailarako edozeinendako".

Etxebizitzak alokatzeko aukeraz gain, etxebizitzak adineko pertsonekin konpartitzeko aukera ere ematen du Eskola Politeknikoak web orri horretan. Ikasturte honetan abian jarritako ekimena da hauxe, pertsona nagusiek eta ikasleek etxebizitza konpartitu dezaten.

**KUDEAKETA**
Web orria ezagutzeko interesa duenak posta elektronikora sartzea besterik ez dauka. Hortxe izango ditu argibide guztiak. Gero, Eskola Politeknikoa arduratuko da jasotako informazioa behar bezala kudeatzeaz. Adibidez, "norbaitek etxebizitza bat alokatzea nahi badu, bere datuak sartu beharko ditu eta gero, nik datu horiek benetakoak direla egiaztatu ondoren, web orrian publikatuko ditut".

Dagoeneko, Eskola Politeknikoaren web orria sarean sartuta dago; edozelan ere, oraindik ez ditu bisita gehiegi izan, "izan ere, maiatzetik aurrera hasten dira ikasleak etxe bila, ikasturtea amaitzean eta berria hastean".

Web orri horren helbidea honakoa da: www.eps.muni.es




Web orriaren irudia. UBANE MADERA

**ELGETA** ZUTIK DAGOEN ERROTA BAKARRA

# Lagun Artea errota barrutik zein kanpotik konponduko dute

*Teilatutik hasi eta funtzionatzeko tresneriaraino konponduko dute*

IBAN ARANTZABAL

**Elgetan hamabi errota zeuden duela ez asko, hala ere, orain baten aztarnak baino ez dira geratzen. Ondo samar dagoen bakarra Lagun Artea errota da. Kostan Sastumek helduko die konponketa lanei, izan ere, berak badu errota bat Amezketan.**

Errotak lehen bazuen jabea, Patxi Txiki, hain zuzen ere, hala eta guztiz, orain jabe askorena da hamasei zatitan banatu eta gero. Duela ez asko berriro jarri zuen funtzionamenduan Juanito Oleik, hala ere, errotak berritzearen beharra agerian utzi zuen orduan ere. AEKko barnetegikoek ikusi zuten azkenengoz martxan, baina udalaren ekimenari esker eta Aldundiak jarriko dituen bi milioien laguntzaz, herritarrok zein kanpotarrek ikusi ahal izango dugu errotaren funtzionamendua.

Teilatutik hasi eta aleak ehotzeko harrietaraino, dena edo gehiena dago konpontzeko. Tresneria guztia txukundu behar da; berriz, gainean duen presa garbitu, kanalak egokitu... Hori guztia egiteko 4,92 milioi erabiliko ditu udalak.

Kultura teknikariaren esanetan, "teorian apiril amaierarako amaituta egon beharko luketelanek, baina uztailaren 31ra arteko epe muga dute, horixe da eta aldundiak jarritako muga. Errota konpontzeak, herriko jendeaz gain, kanpoko jendea erakartzeko balio behar luke. Eskoletatik eta irteera asko egiten dira horrelako etxeak ikustera, eta hori ere positibotzat baloratu da". Errota bestelako proiektu batzuen baitan kokatu behar dugu. Elgetak bere eskaintza kulturala eta turistikoa batera eman gura ditu eta errota horri elkartuko zaizkio mendi museoa eta auditoriuma bezalako egitasmoak.

> **Zertzelada**
>
> **4,92 milioi pezeta erabiliko ditu udalak, eta horietatik 2 Aldundiak jarriko ditu. Uztailaren 31rako amaituta egon beharko dute lanek dirulaguntza jasotzeko**

**BERGARA** UDAL AURREKONTUAK

# 2.754 milioi pezetako aurrekontua izango du aurten Udalak

*EAJ-EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin onartu dute*

MONIKA BELASTEGI

**Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten. Aipatutako kopuruari, Udal Euskaltegia, Mizpirualde zaharren egoitza eta Bergarako Bihargintza SAren 446 milioi gehitu behar zaizkio. Aurrekontu osoa, beraz, 3.046 milioikoa da.**

Iazko aurrekontuarekin alderatuz, aurtengoak 90 milioitan egin du behera. Inbertsioetarako 725 milioi pezeta bideratuko dituzte, iaz baino 70 milioi gutxiago. Bestalde, zorpetze mailari dagokionez, %17,2koa da, iaztik 3,1 puntu egin du gora.

EHk bere aldetik, ezezkoa eman zion aurrekontuari hasiera batean abstenitzekoa bazen ere. Arrazoia da, osoko bilkuran bertan Udalbiltzari zuzendutako 2,5 milioitako partida atzera bota zuela EAJ-EAk.



Oxirondo plaza egokitzeko 50 milioi inbertituko ditu Udalak. MONIKA BELASTEGI

**INBERTSIO AIPAGARRIAK**
725 milioi horietatik, honako inbertsio hauek aurrez ikusi ditu Udalak, beste batzuen artean: kanposantuko eraikuntzetarako, 55 milioi; Arrizuri jauregia (gaur egun Ertzaintzaren komisaria dena) Barne Sailari erosi eta liburutegia bertan kokatzeko, 64 milioi; etxebizitza eta hirigintza garapenerako lursailen erosketarako, 68 milioi; auzoetako ekipamendurako, 34 milioi; Ibargarai kale inguruak urbanizatzeko, 100 milioi; argiteri publikorako, 20 milioi; eta ur sarean hainbat lan egiteko, 25 milioi.

**Aurrekontua batzordeka**

(milioi pezetatan)

| | |
|---|---|
| Auzoak | 92,991 |
| Ingurumena | 154,605 |
| Zerbitzu orokorrak | 714,660 |
| Informatika | 33,625 |
| Kultura | 192,684 |
| Kirolak | 93,127 |
| Hirigintza | 387,018 |
| Hezkuntza | 76,444 |
| Gizarte Ongizatea | 284,011 |
| Pertsonala | 662,090 |
| Euskara | 62,900 |

**ANTZUOLA**

# Arrola mendi taldeak batzar nagusia egingo du martxoaren 22an

AINTZANE IRIZAR

Datorren eguenean egingo dute Arrola mendi taldekoek urteroko batzar nagusia, gurasoen elkartean, arratsaldeko 19:30ean. Urteko balantzea egingo dute, bai ekintzei dagokienez, baita diru kontuei dagokienez ere. Batzarkide berriak ere hautatuko dituzte. Orain arte Julen Garitano izan da elkarteko presidentea, eta berarekin batera, beste sei lagunek osatu dute batzarra. Urteko ekintzen egutegia ere egin dute dagoeneko elkarteko arduradunek. Denetariko ekintzak antolatu dituzte: mendi irteerak, uztailerako kanpaldia, irailerako Finalista eguna Gaztelugainen...

**FRONTOIA ITXITA ASTEBETEZ**
Martxoaren 19tik 24ra egongo da itxita herriko frontoia, margotu egin behar dutelako. Deba arroko pilota txapelketako finala Antzuolan jokatuko dutela-eta, frontoia txukuntzea erabaki dute Udaleko arduradunek.

ARETXABALETA | LARRINOKO ELIZAREN INAUGURAZIOA

# Igandean inauguratu zuten Larrino auzoko San Kristobal eliza

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den domekan Larrino auzoko San Kristobal eliza jendez lepo bete zen. Izan ere, zaharberritze lanak bukatutzat emateko, inaugurazio ekitaldia egin zuten. Meza esan ondoren, diru kontuak argitu eta luntx ederra egin zuten hara hurbildutako guztientzako.

Larrinoko elizan, duela hilabete batzuk bukatu zituzten konponketa lanak. Teilatua guztiz zaharberritu eta tximistorratz berria jarri zioten. Horretaz gain, elizpea eta ondoan dagoen frontoia ere margotu dituzte. Barrualdean, bestalde, bataio pontea eta ur bedeinkatua dagoen ontzia konpondu, eta lurreko oholeria aldatu dute. San Kristobal elizak dituen aberastasunen artean, aipatzekoak dira, eskuak garbitzeko Talaverako zeramikazko ontzia eta bataio pontea.



San Kristobal eliza goitik behera berritu dute. AMAGOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA | CHIAPASEKIN ANAIKIDETZA

# Jabi Romaretazabala/ Kooperantea

## *“Anaikidetza sinboliko bat eskatzen dute Chiapasetik”*

IÑIGO BIAIN

**Jabi Romaretazabala “Iurre” 36 urteko eskoriatzarra, 1994an joan zen lehenbizikoz Chiapasa, kasu hartan turismoa egitera. Baina hango egoera ikusita, eta herriak zituen beharrez ohartuta, urtero joan da orduandik, lehen urtean ez bezala, laguntza ematera. Gaur egun Eskoriatza eta San Andrés Sakam´chen de los Pobres herriak anaikidetze bidean dira.**



**Hainbat alditan izan zara Chiapasen. Zer egin duzu han?**

Urte baten irakasle bezala ibili nintzen, matematika, irakurtzen eta idazten erakusten. Gainontzeko urteetan begirale bezala izan naiz, hau da, hitz gordinetan esanda, giza-ezkutu lanak egiten. Izan ere, han ejerzitoak nahi izan duen guztia egin du, eta hori gelditzeko modu bakarra kanpotarrak tartean jartzea da. Tristea baldin bada ere, esan behar da gutako edozeinen bizitzak Chiapasko edozein indigenenak baino balio haundiagoa duela.

**Abenduan Eskoriatzako Udalean anaikidetze proposamena jaso zuten Chiapasko herrixka batetik. Zer da zehatz-mehatz kontu hori?**

Eskoriatzako Udalak lehen ere jaso zuen Mexikoko Gobernuz Kanpoko Erakunde batetik errekonozimendua, plaka bat jaso zuen eta emandako laguntzagatik. Oraingo honetan San Andrés Sakam´chen de los Pobresko Udalak bi herrien arteko anaikidetzea eskatu du. Anaikidetze hau batez ere sinbolikoa den arren, ez dugu ahaztu behar orain arte gurekin izandako lotura ez dutela moztu nahi, hemendik laguntza asko jaso baitute, eurentzako hil ala bizikoa den laguntza. Eskoriatzako Udalak oraindik ez du erantzun ofizialik eman, baina ez dut uste eragozpenik izango denik, orain arte oso jarrera zabala azaldu du eta gai honetan.

**Nola dago han egoera? Bueltatuko zara?**

Mexikoko Presidentea aldatzeak itxaropen pixka bat piztu du, baina ni neu nahiko ezkorra naiz, ez baitut uste hain aberatsa den lurralde bat indigenen eskuetan utzi nahiko dutenik, beraiek nahi bezala kudea dezaten. Eta zalantza hauek dauzkadan bitartean hara joaten jarraituko dut, gure laguntza han ezinbestekoa da eta.

OÑATI | ETXEBIZITZA SOZIALAK

# Bidebarrietako etxebizitza sozialak zozkatuko dituzte datorren astean

*Hamabi etxebizitza daude zerrendako 93 pertsonen artean zozkatzeko*

AINTZANE IRIZAR

Martxoaren 21ean, eguaztenean, izango da zozketa. Santa Ana antzokian egingo dute arratsaldeko 16:30etan. Urtarrilean eman zuten jakitera zozketan sartuko direnen eta ez direnen behin betiko zerrenda. 93 pertsona sartuko dira zozketan. Guztira 23 dira Bidebarrietan egin dituzten etxebizitza sozialak. Horietatik 12 saltzeko dira, eta Etxebiden esku daude; gainerakoak Oñatiko Udalaren esku geratuko dira, behar handiena dutenen artean alokairuan jartzeko. Beraz, datorren eguaztenean 12 etxebizitza zozkatuko dituzte. Zozketan sartzen direnen artean hiru talde daude: 35 urtetik beherakoen artean, 8 etxebizitza zozkatuko dituzte; karga familiarra dutenen artean ( hau da, 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoz osatutako familiak), hiru etxebizitza; eta gainerakoen artean etxebizitza bakarra. Etxebideko arduradunen esanetan, maiatza aldean izango dituzte etxeetako giltzak, zozketak halaxe erabakita, etxeen jabe izango direnek.



Maiatza aldean emango zaizkie giltzak etxeetako jabeei. AINTZANE IRIZAR

**TXAKURRENDAKO ZERBITZU BERRIA**

Abandonatuta edo galduta azaltzen diren txakurrak jaso eta zaintzeko zerbitzua kontratatzea erabaki du Oñatiko Udalak. Axen Garitano bergararrarekin jarri dira harremanetan horretarako. Honek txakurrak jaso eta zaindu egingo ditu. Bestalde, jaberik ez duten txakurrei jabea topatzen ere saiatuko dira.

ARAMAIO | EUSKARA ARAMAION

# Araba guztiko herririk euskaldunena da Aramaio

*Euskararen gaineko erakusketa Gasteizen*

UBANE MADERA

Erakusketa bat ireki dute Gasteizen, Montehermoso kultura gunean, eta martxoaren 25era arte zabalik egongo da. Euskarak Araban izan duen hedapena ezagutaraztea da helburua. Eta, Aramaiok leku berezia du. Izan ere, Arabako mapa linguistikoan, Aramaio da euskaldunena. Gainera, frankismoarekin, euskara desagertzen joan zen, Aramaion izan ezik. Horrez gain, Aramaioko bi idazleren ibilbideak ere ikusgai daude: Pedro Ignacio de Barrutia 1682an jaio zen eta berak idatzi zuen euskarazko lehen antzerkia. XIX mende amaieran, berriz, Gabriel Jauregi jaio zen, euskarazko fisika eta kimikako lehen liburuen autorea.

Oñatiarrei urteetan konfiantza eta zerbitzua emanez.
GARAI HARATEGIA
...eta ez zaitzatela zoratu!
Maiatzaren 1a plaza, 2
OÑATI
Tel.: 943 78 02 59
EUSKAL OKELA
EUSKADIKO BEHI OKELA

# Zabalik



JABIER MARCOS

## Umeak

Duela gutxi jakin ditugu Eusko Jaurlaritzak jaiotze tasa txikiari aurre egiteko martxan jarriko dituen planak. Besteak beste, umeak izateko dirulaguntza zuzenak bigarren umetik aurrera, zerga arintzeak lehen umetik aurrera, haurtzaindegi zerbitzu subentzionatua eta lan uzteak eta lanaldi-murrizketak hartzeko dirulaguntzak bai enpresarientzat eta baita langileentzat ere. Euskal Autonomia Erkidegoan dugun tasa eskasa (0,8 ume emakume bakoitzeko, Europako txikienetarikoa) hobetzea da plan honen helburua. Ni konforme! Ahal dela, umeak ekarri behar ditugu, eta martxan jartzen dituzten sustapen neurriak ongi etorriak izango dira.

Halere, umeak izatea sustatzeko planaren berri eduki nuenean plan *tranpa* izan zitekeenaren susmoa hartu nuen. Gure politikoek normalean duten sinesgarritasun tasak baxuak badira (0,8?), imajina ezazue noraino iristen diren tasa horiek kanpaina politikoa tartean denean. Hemendik eta M-13 bitartean politikoek esaten dutenaz fidatzea ez da oso gomendagarria.

Baina beste gogoeta bat planteatu nahi nuen nik hemen. Zergatik ez ditugu sustapen neurriak hartzen gaur egun dauzkagun neska-mutikoen bizimodua hobetzeko? Helduok, gurasook, nahiko lanpetuta ibiltzen gara, estresatuta batzuetan, eta badirudi estresaren eredua gure haurrei transmititu nahi diegula. Ikastola orduak aparte, hona hemen umeek egiten dituzten beste ekintza batzuk: katekesia, dantza, solfeoa, hizkuntzak, baleta, karatea, igeriketa, denetariko kirolak, eta abar. *Nire semeak astegun guztietan aktibitateren bat edo beste egiten du, eta astean behin psikologoarekin kontsulta dauka...*, esaten zidan nire lagun batek lehengo egunean. Ez da hori guztion kasua, zorionez, baina neska-mutiko gehienak batetik bestera ibiltzen dira astean zehar euren eskolaz kanpoko agenda bete nahian.

Egoera hori hobetzeko sustapen neurririk ez?

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Zorionak, azpiko!

Kaixo, Ion. Zure eguna heltzear dagoenez, zu zoriontzeko asmoz idazten dizkizut lerro hauek. Gauza asko esateko dauden arren, oraingoz neure baitan utziko ditut, eta beste une batean jakinaraziko dizkizut, baina momentuz berrogeita hemeretzi muxutxo goxo bidaltzen dizkizut, eta beste horrenbeste besarkada.

Ahalik eta hobekien egotea espero dut, eta ezagutu zintudaneko irribarre polit horrekin jarraitzea ere.

Besterik gabe, Ion, agurtzen natzaizu, baina seguru laster elkarrekin egoteko aukera izango dugula; ea oraingoan herrian den, elkarri kontutxoak esaten dizkiogun bitartean denbora neurtzen egon gabe, bai? Esandakoa, zaindu zaitez eta zorionak berriz ere. Jo ta ke, presoak etxeratu arte!

IRATI ARANTZABAL ZULOAGA

## Akusazio faltsuak

Nerea Agiriano Barandiaran andreak 2001eko otsailaren 23an *Goienkaria*ri igorritako gutuna dela eta, Bergarako Notariotzak zera adierazi nahi du: Nerea Agiriano Barandiaranek Bergarako Notariotzari eginiko salaketak oinarri barikoak eta guztiz faltsuak dira, egilearen ezjakintasuna dela edo asmo txarra dela.

MARIA LARRAITZ FRANCO GALARRAGA
ANTONIO ROMAN DE LA CUESTA GALDIZ
Bergarako notarioak

## Edozein bide ez da egokia

Ez dugu onartzen Arrasateko EAJko zinegotzia den Loitiren aurka martxoaren 7an kaputxadun batzuek egindako erasoa. Loiti jaunak arrasatear multzo handi bat ordezkatzen du; ekintza horren eraginez, herritar multzo zabal hori eta euren ideia politikoak senti daitezke erasotuak baita ere.

Gure ustetan, erabili dena ez da estrategia politiko bat defendatzeko bide ona. Alde batetik, inork ez dugulako egiaren monopolioa eta denok daukagulako zer aztertu eta zer ikasi. Bestetik, ideiak ideiekin defenditu behar direlako, arrazoi eta argudioekin.

Ezin ditugu erabili Estatuak erabiltzen dituen metodo antzerakoak: inposaketa, jipoia, errepresioa... Ez da zilegizkoa norberaren pentsaera eta proiektu politikoa defendatzea, besteenak indarrez zigortuz eta isilaraziz. Norbere buruarentzat eta kide politikoentzat aldarrikatzen den adierazpen askatasun berbera zor zaie besteei ere.

Gizarte kapitalista, baztertzaile eta autoritario hau aldatu nahi dugunok balore alternatiboak garatu behar ditugu gure jarduera politikoan; ezin gara arriskatu errefusatzen dugun gizarte berberan jaten ematen dioten balore berdinen morroi izatera.

Eta hori guztia jakin arren, estatua eta bere politika direla Euskal Herriko egoeraren lehenengo erantzuleak, berak dituelako arazoak konpontze bidean ipintzeko baliabide eta ahalmen handienak. Horren ordez, probokazio politikoa etengabea egiten ari da Euskal Herriko disidentziaren kontra, batez ere, egungo marko politikoarekin konformatzen ez garenen aurka. Horren adierazle, azken egunotan Haikaren ordezkarien atxiloketa indiskriminatu eta justifikaezinak.

Hala ere, Loitiri eginiko erasoa, zilegia ez izateaz gain, ez da politikoki zuzena, gure ustez; herritarren haserrea eta egonezina piztuko ditu, seguruenez, baina ez da egokia mobilizazioaren bideak zabaltzeko eta geroz eta herritar gehiagoren partaidetza suspertzeko.

ZUTIK
Debagoiena

## Txapi askatu!

Martxoaren 11n, gaueko 10etan, Garzon epailearen aginduz, gure taldeko kide den eta Bergarako gaztetxearen bultzatzaileetariko bat izan den Xabier Arregi "Txapi", Espainiako Poliziak atxilotu zuen.

Gutun honen bitartez, gure desadostasuna adierazi nahi dugu eraso faxista hau dela eta, Txapi gure ondotik eraman baitute.

Hau guztia, Espainiar Estatuak euskal gazteriaren hitza isilarazteko beste bide bat da. Hori horrela bada, eta Txapi atxilotua izan bada, atxilotu gaitzatela gu ere!

Beraz, Bergarako Gazte Asanbladaren izenean, Txapiren askatasuna eskatzen dugu eta gure elkartasuna adierazi.

GAZTE ASANBLADA
Bergara

## Errepideetako seinaleak?

Vizcaya, Guipuzcoa eta Vergara ikusi ditugu hor nonbait. Arrasate kendu eta Mondragón soilik agerian uzten duen bide-seinalea begiztatu dugu egunotan. Hor nonbaitek, zoritxarrez, gure herrian bertan esan nahi du. Euskarari erasoa, probokazioa..., ez dakigu, baina erantzunik gabe ezin dela gelditu argi daukagu.

Euskal Herria euskararen herria dela ezin dugu ukatu, ez eta ezkutatu ere. Herri hau eta hizkuntza hau hilik ikusi nahi dutenek horretan diharduten arren. Gurea dena defendatu behar dugu.

Euskal Herrian euskaraz. Ofizialtasuna, eskubidea dugulako.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

Gutun gehiago 8. orrialdean

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Gaztetxea eta gaztelekua, biak dira gazteak batzeko tokiak; jarduerak antolatzeko, jaialdi eta ekitaldiak egiteko, gazteen guneak. Batean zein bestean antolatzen dituzten jarduerak kontuan hartzen baditugu, ez dago ezberdintasun handirik baten edo bestearen artean. Baina, nork kudeatzen ditu gaztetxeak edo gaztelekuak? Hortxe dago koska: gaztetxearen aldekoak, gazteek eurek kudeatzearen aldekoak dira. Gaztelekuaren ereduaren aldekoek, kudeaketa lanak erakunde baten eskuetan lagatzen dituzte.

# Zer nahiago: gaztetxea ala gaztelekua?

### *Gaztetxia egin egitten da eta gaztelekua egindda dator*



OXEL EROSTARBE
Elgetako gaztetxekoa

Gaztetxia ala Gaztelekua, denbora libriari irteeria topatzeko bi eredu. Partehartzia, informatzia... bultzatu nahi dittuen aukera honetatik, gaztiok Gaztetxian alde egin bihar dogu. Gure sormena, burutapenak eta pentsamoldiak garatzeko modu egokixena da-eta.

Gaztetxia, ikusten dittugun biharren arabera, geuk antolatzen dogu hasieratik. Gizartian daren hutsuniak betetzeko ahalegiñian, sortzen jakuzen galdera danei geuk topauko dotseu erantzuna.

Gaztelekuan, gaztia, dana egindda dagonian sartzen da, erantzuna galderian aurretik emoten jako. Gaztelekuan, gaztia, liburutegixan moduan dago. Ez dau liburua beria balitza moduan irakurtzen.

Autofinantziaziñuan bidetik, Gaztetxiak bere politikia dauka. Erabaki danak, batzarretan hartzen dira. Adostasunak billauaz, taldian interesak, norberanen gainetik jartzen dittugu.

Gizartia aldatu nahixan, bizitzeko eta pentsatzeko modua da Gaztetxia. Gaztelekuan bidia goittik markauta dator eta han egiten daben danian, politikuek dauke azkenengo berbia.

### *Autokudeaketaren arloa gaztelekura ekarri nahi da*



JOSE ANTONIO URTEAGA
Oñatiko Kirolak eta Gazteriako zinegotzia

Kontua ez da soilik eraikina bera eta bere kudeaketa modua, baizik eta gazteriaren alde eta gazteriarentzako, udalak (edo eskualdeko erakundeek, probintziakoek...) egin dezakeena. Bestalde, ezin dezakegu esan kontrajarriak direnik, badaude-eta eredu biak aldi berean erabiltzen dituzten lekuak.

Egia da era berean, erreferentziazko ereduak ez direla berez onak edo txarrak, eredu bat eragingarria izan baitaiteke edo ez, praktikan jartzeko moduaren arabera. Guk geuk eragingo dugu azkeneko emaitzan. Ezin dugu ahaztu gainera, "gazteria" deritzon multzo horrek hainbat jende biltzen duela bere baitan, denetariko adin, ardura, ideia eta abar dituen jendea.

Oñatin zehazki, baditugu Gazteria batzordea eta Gaztelekua orain dela sei edo zazpi urtetik hona, eta oñatiar gazteak abian jartzen ahalegintzen dira zenbait ekintza eta zerbitzu eskainiz, baina batez ere, gazteen sormena bultzatuz, bai banakako mailan bai taldean. Gure ahaleginik handiena, gazteak, euren burua, zerbitzuaren protagonista eta kudeatzaile sentitu dezatela da. Askorentzat Gaztetxearen abantaila (teorikoa edo hasierakoa) den autokudeaketaren arlo hori, hein handian gure eredura, Gaztelekura, ekarri nahi dugu, eta horretan alderdi guztietako ordezkariak gaude murgilduta.

Beharbada, udalaren esku-hartzea, gai gehiagotan eta gutxirentzat direnetan arreta jartzea errazten du (nahiz eta musika izan kanpora begira gehien erakartzen duena), eta hori Gaztelekuaren aldeko puntu garrantzitsua litzateke, Oñatiko Gaztelekuan lan egiten dugun moduari dagokionez behintzat (abentura kirola, argazkigintza, literatura, antzerkigintza, musika, malabarrak, eta abar; noski, informatika, gazteentzako informazioa edota topalekua bezalako zerbitzu iraunkorrez gain).

### Gaztetxea, jakina!

Gaztetxia edo gaztelekua planteatzen dozue zuen eztabaidan, eta horren inguruko iritzia emoteko idazten dot. Nik gaztetxia nahiago dot, bertan gazteok garelako partaide zuzenak, erabaki guztiak asanblada bitartez hartu, autogestioa bultzatu eta, horrela, gazteok gure beharrak aurrera eroateko leku libre bat sortzen dogulako, inungo nagusi, buruzagi edo gure ekintzen programatzaile barik. Gu, geure kabuz, guztia eroateko gai garelako.

ANDER ELORTZA
Bergara

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

### *Oscarretan saritutako pelikulak, kalitatezkoak dira?*

## Gora eta Behera

**ZAPATISTEN ABIALDIA**

Zapatistek Mexiko hiriburura egin duten ibilaldiak oihartzun handia izan du mundu osoko komunikabideetan. Ekintza jakin hau, Mexikoko ez ezik, Hego eta Erdialdeko Amerikako indigenen egoera zein den ezagutarazteko baliagarria izan da. Horrenbeste zapalkuntza jasan dutenentzat argi izpi bat izan daiteke ekintza hau.

**TALIBANAK**

Afganistanen, Bamiyan mendian, V. mendeko 53 metroko bi buda erraldoi (zutik dauden munduko handienak) txikitu dituzte, islamaren izenean. Erlijioaren irakurketa okerra. Gosez hiltzen dauden herrikideei lagundu behar dietela ez al du esaten islamek.



ARANTZAZU MURGIONDO
Oñatiko liburutegikoa

## Koplak

### *Hauteskundeak euskal herri(et)an*

Sartu aurretik gainean dauden
hauteskundeen harira,
Iparraldeko bozen emaitzei
jarri nahi nuen begira:

Iparraldeko anai-arreben
bozak hartuta lekuko,
bildurrez nago hemen itxura
bera ez al dun hartuko...

Frantses eskuindar taldeen esku
dago berriro batela,
seguru nago Mayor Orejak
pozik ospatu zuela.

Berriro ere etxe-nagusi
jarraitzen dute arrotzak,
gureak baino zorrotzagoak
badira norbaitzun hortzak...

Tipo maltzurra baina argia
izan zen bere modura,
abertzaleak separatzea
pentsatu izan zun hura.

Euskaldun legez, itxoiten nago
noiz helduko den eguna,
hausteskundeak egun berean
ospatuko dituguna.

SAIOA ARANDO

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo, Mireia Larrañaga, Natali Martinez
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Gutunak

## Bazterketa soziala

Gaurkoan, benetan latza izanik ere ezkutuan gordeta dagoen arazo batez erreflexioa eginez idaztea tokatu zaigu (bazterketa soziala). Gizartea hainbat kolektibotan zatikatuta dago, gaurkoan Euskal Herria izango dugularik aztergai.

Lehenik eta behin esan behar da Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko eskubidea zapalduta daukala, hau edozein giza kolektiborentzat funtsezko eskubidea izanik ere, herri honek ez dauka bermatua.

Honek berebiziko garrantzia dauka, gai hau aztertzeko garaian, ezinezkoa baita bere baliabideak erabiltzeko gaitasuna edukitzea, kolektiboaren baitan dagoen gizaki orok bere eskubideak bermatuak izan ditzan, bazterketa sozialaren fenomenoa behingoz desagertu dadin.

Har ditzagun bazterketa sozialari bultzada izugarria ematen dioten adibide batzuk:

Prekarietatea: lan baldintzen inguruan eskualde hau oso egoera onenan dagoela esaten dute askotan, baina prekarietatearen presentzia izugarri altua da.

Etxebizitza: etxebizitzaren inguruan egiten duten espekulazioak funtsezkoa den eskubide baten bortxatze maila izugarrietara eramaten gaitu.

Hauek aipatuko ditugu soilik gaurkoan, baina garbi izan behar dugu bazterketa sozialaren fenomenoa deuseztatu nahi badugu, gizarte eraldaketa osoaren bidetik soilik lortuko dugula, eta hori, egunerokotasunean egoeraren salaketa iraunkorra eginez, eta burujabetzaren bidean eraikuntza nazionalean urratsak emanez etorriko dela.

HERRI BATASUNA
Arrasate

## Faxismo espainiarraren aurka, gazteria gogor eta tinko!

Euskal gazteria urteetan zapaldua izan da eta oraindik ere egoerak horrela dirau. Hala, pasa den martxoaren 6an, Haikako 15 militante atxilotu zituzten Garzon epaile faxistaren aginduz, berauei talde armatuko kide izatea leporatuz. Baina beraien delitu bakarra gaztea eta abertzalea izatea da eta estatu etsaien eraso berri hau gazteon aurkako kriminalizazio ekintzatzat jotzen dugu.

15 gazte hauei eginiko erasoa, ez da soilik haien aurkakoa izan, euskal gazteria osoari eginiko erasoa ere izan baita. Izan ere gu gara herri honen oraina eta etorkizuna!

Bestalde, egunotan zipaioek izaniko jarrera gogor salatu nahi dugu. Hala, martxoaren 6an, herriko plazan egiten ari zen enkartelada oztopatu eta bertan bilduta geunden 150 pertsonak bideoz filmatu gintuzten. Beti bezala beraien autoritatea erakutsi nahian aritu ziren, beren presentzia kale zein tabernetan erakutsiz. Martxoaren 7ko manifestaldian ere, manifestarien aurka kargatu eta kaletik lasai-lasai zihoan gazte bat jipoitu eta pistolaz mehatxatu zuten.

Gertakari hauek guztiak gogor salatu eta HAIKAren aurkako eraso berri honi aurre egiteko, datorren hilaren 17an, Bilbon egingo dugun manifestaziora deitzen zaituztegu. Guztion esku dago garaipena!

Gora Euskal Gazte Mugimendua! Haika Askatu!

HAIKA
Arrasate

## Gora Patarroyo!, behera BBVA!

Zuengana jo dugu martxoaren 9ko *Goienkarian*, *Iritzia* ataleko "Gora eta Behera" zutabean BBVA eta Manuel Elkin Patarroyoren inguruan agertu zen testua dela eta.

Hainbat egunkaritan eta komunikabidetan jaso dugun informazioa bateratu eta aztertu ondoren iritzi artikulu hartako datuekin bat ez gatozela jakinarazi nahi dizuegu.

Hori dela eta, hona hemen gure ustetan aldatu eta gaineratuko genituzkeen zenbait datu:

Lehenik eta behin, Patarroyo mediku kolonbiar ospetsuaren laborategia zegoen ospitalea bahitu zuten zorrak ez ordaintzeagatik. Hots, ospitalea zen zorrak zituena eta eraikinaren barruan egotearren bahitu zuten Patarroyoren laborategiko tresneria, azken honek ez baitzeukan zorrik.

Bigarrenik, BBVAk ez du Banco Ganadero erosi Patarroyori zorrak barkatzeko, zeren eta bahiketa egin zuenean Kolonbiako Banco Ganadero BBVAren filiala zen.

Azkenik, BBVAk ez du Patarroyoren laborategia itzultzeko eta lana bultzatzeko fundaziorik sortu, berau Patarroyok aurrez sortuta zegoelako.

Gure aburuz marketinak eta iritzi publikoan izan duen hedapen eta zabalkunde nabarmenak eragin sakona izan du BBVAren azken erabakian. BBVAk Patarroyoren laborategiko tresneria bueltatzea erabaki zuen, azkenaldian bere itxura publikoak jaso duen astindu ederra atzean utzi nahian.

Bukatzeko, aipatu beharra daukagu irakurle batzuk kokatzeko, Manuel Elkin Patarroyok malariaren aurkako txertoa aurkitu ondoren guztien esku utzi zuela, patentearen truke eskaintako milaka dolarri uko egin ondoren.

DBHO-1. MAILAKO IKASLEAK
ETEO (Oñati)

RENAULT

Giltza bariko autoa aurkezten dizugu Renault Laguna berria.



Martxoaren 9an aurkeztu zuten Miramoneko Parke Teknologikoan Renault Laguna berria.



Argazkian, MECAko arduradunak Renault-eko beste ordezkari nagusiekin.

MECA
San Andres auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 71 24 72
Amillaga, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 40 68



GOIO ARANA

# *Joxemari Muxika*

EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

## "Herri aldizkariak sarean jarriz, euskarazko produkzioa jendearen eskura jarri nahi dugu"

### EUSKARA ELKARTEAK

**"Topaguneko bazkide diren euskara elkarteak (59), Hego Euskal Herriko herrialde guztietakoak dira. Iparraldeko bazkiderik oraindik ez daukagu"**

### GOIENA

**"Topaguneak pozez hartzen ditu herri komunikabideak ziurtatzera doazen ekimenak. Hori da Goiena egiten ari dena"**

Besteak beste, Arrasate Euskaldun Dezagun, Arko eta Goienaren sortzaile eta bultzatzaileetariko bat dugu. Joan den urteaz geroztik, berriz, Topagunea euskara elkarteen federazioko lehendakaria. Zapatuan urteko Batzar Nagusia egin zuen Topaguneak. Iaz egindakoaz eta aurrera begirako egitasmo eta erronkez jardun dugu berarekin.

ENEKO AZKARATE

**Urtea eman duzu Topagunearen lehendakaritzan. Zein da urte honetan egindako lanaren balorazioa?**

Topagunearen eta bere bazkideen egoeraz jabetu naiz. Urterako jarri genituen sendotze helburuak bete dira eta luzerako zirenak betetzeko bidean jarri ditugu. Elkarteek eta Topaguneak elkarri konfiantza eman diogu. Positiboki baloratzen dut urtea. Sendotze prozesuan aurrera pauso onak eman dira: elkarteen jarduera sendotu egin da, elkarteak berak indartu egin dira eta federazioa ere sendotzeko bidean jarri dugu.

**Arazo batzuk direla medio, Kultur Errota geldi egon ondoren, berriz ere hasi zarete antolatzen formatu txikiko kultura emanaldiak. Zelan doa ikasturte honetan?**

Geldi egon garenik ez nuke esango. Apirilean hasi ginen emanaldiekin eta urtearen azkenerako 126 ekitaldi egin dira 30 herritan eta parte hartu duten artistak 23 izan dira. Ez dut uste batere marka txarra denik. Hasiera, aukeran, berandutu egin zitzaigun. Hala ere, 1999an baino 26 emanaldi gehiago egin dira. Negu aldean gutxiago egin ahal direla ikasi dugu. Beraz, 2001ean 150 emanaldi egiteko helburura iristeko, udaberri, uda eta udazkenean 2000n egin ditugunak baino gehiago egin behar dira. Aurten, dagoeneko, hasita gaude. Planifikazio kontua da.

**Bestalde, Bizkaian, Udagoieneko Ostera izenburupean, formatu handiko emanaldi batzuk ere antolatu dituzue...**

Udalerri handietan eta euskara elkarterik ez zegoen tokietan 8 emanaldi egin ditugu. Ekitaldi hauekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusiak eskaini zigun babes ekonomikoak sortzen zuen aukerari etekina atera nahi izan genion. Horrela, alde batetik euskal kultura zabaldu, eta bestetik Topagunearen izana, gizarte zabalari ezagutzi diogu. Euskara ez da herri txikietako kontua.

**Gaur egun zenbat euskara elkarte daude Topagunean?**

Guztira 59 euskara elkarte daude federazioan. Batzuk herri aldizkariak argitaratzera bakarrik dedikatzen dira. Beste batzuk haur eta gazteen ekintzetara. Herri aldizkariak argitaratzen dituzten euskara elkarte askok jarduera bat baino gehiago dute, adibidez: Jardun, Eta Kitto, Elgoibarko Izarra, Ttakun (2000ko Abbadia saria jaso duena) edo Geu Gasteiz. Topaguneako bazkide diren euskara elkarteak, Hego Euskal Herriko herrialde guztietakoak dira. Iparraldeko bazkiderik oraindik ez dugu. Bestalde, aurtengo Batzar Nagusian bazkide bezala onartu ditugunak hauek izan dira: Eskoriatzako Axtroki, Pasaiako Abaraska, Zaldibarko Eixu eta Iurretako Gurien Bai.

**Eta zeintzuk ez daude elkartearen barruan?**

Orokorrean, sortu berriak eta jarduera eratze prozesuan dabiltzanak dira. Adibidez, Iruñeako Txantrea, Aramaioko Ttirritola, Baionako Herria edo Zestoako Danbolin. Topaguneak zerbitzu onak eskaintzen baditu, erakargarria izango da eta bazkide berriak etorriko dira. Horretarako, etxeko lanak ondo eginak erakutsi behar dira, eta elkarteentzako zerbitzuek egokiak izan behar dute.

**Komunikabideei dagokienez, zein da iaz egindakoaren balantzea?**

Komunikabideetan aldizkarigintza da aipagarriena. Euskal Herriko 57 herri aldizkarietatik 33, federazioan daude, eta herri aldizkari guztien urteko ale tiradaren %91 produzitzen dute. Euskaraz idatzitako aldizkari guztiek produzitzen duten %45 gure federazioko elkarteek produzitzen dute. 1999an 31 aldizkari ziren federazioan eta produkzioaren %87 ziren. Beraz, aurrera goaz. Ugaltzearen adibideak honako hauek dira: *Txintxarri* astekari bihurtu izana, *Maxixatzen, Karkara* eta *Galtzaundi*, lehen hilabetekariak zirenak, hamabostekariak dira orain, eta argitalpen berriak dira *Hernaniko Kronika*, astean bost egunekoa, eta *Goienkaria* astekaria.

Telebistak, bi ditugu federazioan: Ttipi Ttapa eta GOITB, eta irratiak beste bi: Baleixe eta Arrasate Irratia.

**Eta aurtengo erronka nagusiak?**

Hasteko, "eginari eutsi" da leloa eta horretarako elkarte bakoitzaren antolakuntza sustatuko dugu eta behar diren zerbitzuak elkarrekin bideratuko ditugu. Topagunearen egiteko nagusietako bat horixe da. Zehatzago esanda, informatika inguruko beharrei erantzuteko antolaketa ziurtatu, elkarteentzat dirulaguntzen gestioak egiten jarraitu eta arlo berrietara zabaldu eta formazio beharrak asetzeko modua ahalbideratu. Euskara elkarteen eskualdekako antolakuntza ere indartzen joan behar dugu. Era berean, aztertu nahi dugu haur eta gazteen arlorako lan programa berriak nola zabaldu.

**Aldizkariak sarean jartzen hasi zarete...**

Euskarazko produkzioa jendearen eskura jarri nahi dugu. Sarean sartzeko ahalbidea duenari gure aldizkariak irakurtzeko aukera jartzea, alegia. Aldizkaria argitaratzen duenak berak egin ordez, elkarrekin egiteak, lana errazago egiten du, eta batez ere, aldizkariak eguneratuta izateko ziurtasuna ematen du. Bestalde, kontuan izan, informatikari adituak batera jartzeak beste aukera batzuk sortzen dituela, Topaguneko elkarteen eta Topagunea beraren jarduera guztien informazioa sarean jarri ahal izateko edo aukera berriak aztertzeko.

**Argitalpen kopuruari dagokionez eta aldizkarien tiradari dagokionez, Topagunean biltzen diren aldizkariak nagusi dira euskarazko herri prentsan. Sektorean duen pisuaz eta garrantziaz jabetzen da jendea?**

Beti pentsatu izan da garrantzi handia duela herri aldizkarien fenomenoak, baina ez zegoen euskaraz idatzitako aldizkarien erroldarik eta iritziak estimaziotan oinarritzen dira. Egin berria den euskarazko aldizkarien errolda bateko datuak hartuz, herri aldizkariek kuantitatiboki garrantzia handia dute, 4.460.000 ale argitaratzen dira urtean. Baina dena ez da kuantitatiboa eta herriko informazioa zabaltzen lan handia egiten dute, eta bide batez euskara gizarteratzeko eginkizunean ere bai. Herri prentsa idatziak garrantzia haundia du.

**Goiena egitasmoa eta horrek duen multimedia izaera eredu izan daiteke Euskal Herrian. Zelan hartu du Topaguneak Goienaren sorrera?**

Eredua izan daiteke, baina eskarmentu dezente behar da antolatzen hasteko. Goiena ez da zerotik hasia. Topaguneak pozez hartzen ditu herri komunikabideak ziurtatzera doazen ekimenak, eta hori da Goiena egiten ari dena. Beraz, gustura hartu dugu bere sorrera. Goiena bezalako eskualdeko proiektuak, herri bakoitzeko aldizkarien etorkizunari ziurtasuna ematen die eta beste komunikabide batzuk ahalbideratzen ditu, adibidez, eskualdeko telebista. Beste herri edo eskualde batera eramateko, Topaguneak badu nondik eskarmentua hartu.

**Goienako Errektore Kontseiluko kide ere bazaitugu Arrasateko Arko ordezkatuz. Bi aste barru lehenengo Batzar Nagusia egingo du elkarteak.**

Goiena antolatze prozesu luze batean dator. Lehen pausoak orain dela hogei hilabete eman ziren. Alferrikako presarik gabe, gauzak bere lekuan jartzen ari gara. Gizartearen alde daramagun lanean, elkarlana leialtasunez garatu da euskara elkarteetan biltzen den auzolana (borondatezko lana) eta udalen artean, eskualde honetako herrietan. Izandako eskarmentuak etorkizunerako bidea erakusten digu. Asmatuko ahal dugu eskualdera pasatzen hamar urte baino gehiagoan daramagun elkarlana. Euskara elkarteon aldetik auzolana ziurtatu dugun bezala, espero dut erakundeekin ziurtatuko dugula elkarlana.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko martxoaren 16a

# Gorlako igoera izango da domekan

## Afizionatu mailako 100 bat txirrindulari izango dira irteeran, eguerdiko 12:30etan

Lehendakari eta Euskalduna afizionatu mailako txapelketetan parte hartzen ari diren 100 bat txirrindularik hartuko dute parte Gorlako igoeraren XXVII. ekitaldian. Euskalduna txapelketan eliteko txirrindulariak zein 23 urtetik beherakoak biltzen dira eta Lehendakari txapelketan, aldiz, 19 eta 20 urtekoak. Euskal tropeleko talderik indartsuenak izango dira domekan Bergaran, tartean Iberdrola, Baque, Olarra, Tegui, Telcom, Caja Rural, CDR edota Ulma-Cegasa taldeak. Aurtengo denboraldiari martxoko lehenbiziko astebukaeran eman zioten hasiera eta oraindik ere goiz da faboritoez hitzegiteko, are gehiago Gorlako probaren ezaugarriak kontuan izanik. Hala ere, adituen ustetan, Baque taldeko Iker Camaño edo Dioni Galparsoro (Caja Rural) aurreneko postuetan izan daitezke domekan.

Bergarako Txirrindulari Elkarteari erreleboa hartuz, Lokatza Ziklismo Eskolak bigarren urtez jarraian izango du antolakuntzaren ardura. Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen arabera, "komunikabide mailan oihartzun handiko proba da eta Gorlan irabaztea lortu dutenetatik asko igaro dira profesionaletara. Proba laburra eta esplosiboa da, 9 kilometro ingurukoa, eta taldekako lanak ez dauka horrenbesteko garrantziarik. Eskalatzaile ona izatea derrigorrezkoa da irabazteko".

**BETERANOAK 12ETAN**

Ohikoa den bezala, afizionatuak baino lehen beteranoak izango dira lehian. Beteranoen proba eguerdiko 12etan hasiko da, San Martin plazan.

EDU MENDIBIL



Joaquin Rodriguez iazko irabazlea (argazkian) ONCE profesional taldean ari da aurten.

### Orain arteko irabazleak

| Urtea | Txirrindularia | Denbora |
|---|---|---|
| 1975 | Alberto Fernandez | 23'25" |
| 1976 | Jose Mari Legarreta | 23'06" |
| 1977 | Miguel A. Albeniz | 24'34" |
| 1978 | Raymon Hernando | 23'23" |
| 1979 | Jose Mari Segura | 22'28" |
| 1980 | Iñaki Arrieta | 23'21" |
| 1981 | Julian Gorospe | 21'29" |
| 1982 | Pello Ruiz Cabestany | 22'24" |
| 1983 | Jose del Ramo | 22'01" |
| 1984 | Jesus Argintxona | 22'03" |
| 1985 | Eduardo Betanzos | 22'55" |
| 1986 | Jesus Aranbarri | 21'48" |
| 1987 | Jon Garmendia | 21'23" |
| 1988 | Luis Urizar | 22'43" |
| 1989 | Julian Barcina | 21'38" |
| 1990 | Xabier Lazpiur | 21'20" |
| 1991 | Alfredo Irusta | 21'09" |
| 1992 | Iñigo Cuesta | 21'20" |
| 1993 | Julian Barcina | 20'36" |
| 1994 | Santi Blanco | 20'33" |
| 1995 | Klaus Möller | 20'21" |
| 1996 | Joseba Arregi | 21'21" |
| 1997 | Carlos Sastre | 20'59" |
| 1998 | Juan Manuel Garate | 20'33" |
| 1999 | Juan Manuel Garate | 21'11" |
| 2000 | Joaquin Rodriguez | 20'46" |

# Oñatiko duatloiaren X. ekitaldia hilaren 24an

## Antolatzaileek 225 partaide inguru biltzea espero dute

Oñati Triatloi Taldeak antolatuta, datorren zapatuan, martxoak 24, Oñatiko duatloiaren X. ekitaldia jokatuko dute, 16:00etan hasita. Partaideek duatloiaren distantzia olinpikoa bete beharko dute: zazpi kilometro korrika lehenbizi, jarraian 40 kilometro bizikletan eta, azkenik, beste 3,5 kilometro korrika.

Antolatzaileek herri barruan 3,5 kilometroko zirkuitu bat prestatu dute. Aipatutako zirkuituari bi bira eman ondoren, kirolariek bizikleta hartu eta ondoko ibilbidea egin beharko dute: Oñati-Udana-Legazpi-Deskarga-Antzuola-Bergara-Oñati, 40 kilometro denera. Eta probari amaiera emateko beste 3,5 kilometro korrika izango dituzte. Antolatzaileen arabera, irabazleak ordubete eta 40 minutu inguru behar izango du proba amaitzeko.

Izena ematea zabalik dago eta parte hartu nahi duten guztiek Oñatiko Kutxan edo Euskadiko Kutxan 2.000 pezeta sartu beharko dituzte martxoaren 22a baino lehen. Proba egunean izena emateak 3.000 pezeta balioko du. Federatuta ez daudenek, berriz, astelehena baino lehen eman beharko dute izena.

Oñati Triatloi Taldeak 225 bat partaide biltzea espero du. Proba Euskadiko zirkuiturako puntuagarria izango da. Zirkuituko lehenbiziko proba Basaurin jokatuko dute, domekan. Guztira, 12 probak osatzen dute Euskadiko duatloi zirkuitua. Oñatin, Errioxa, Kantabria eta Madrileko partaideak ere izan dira aurreko ekitaldietan. Partaide guztiei kamiseta bana emango diete eta, era berean, kirol materialaren zozketa egingo dute. Emakume zein gizonezkoentzat diru sari berdinak egongo dira.



Lasterketako proba Oñatin izango da.

### Kirolabur

**PILOTA/ANTZUOLA**

Iker Muruamendiaraz pilota antzuolarrak 21-22ko emaitza rekin galdu zuen Tabernaren au ka, astelehenean Tolosako Beo bar pilotalekuan jokatutako par tiduan. Kroniken arabera, Ikerre partidu ona jokatu zuen eta par tidua irabazteko zorian egon ze Hala ere, azken tantoan Taberna nagusitu zitzaion, eta ondorio Ikerrek agur esan dio bigarre mailako eskuz banakako txape ketari.

**IGERILEKUAK/BERGARA**

Joan den abendutik itxita iza ondoren, datorren astea zabalduko dituzte berriz Agorr singo barruko igerilekuak. Abe duaren 15ean sabaian dagoe berogailuaren hodi zati bat eror zen eta ordutik sabaia konpond eta beste hainbat lan egin ditu te barruko igerilekuetan. Orain dik ez dute zehaztu datorren aste ko zein egunetan zabalduko ditu ten igerilekuak eta Kirol Zerbitzuak ez du zehaztu zenba teko deskontua egingo dien ige rilekuko bazkideei. Bazkide kan paina martxoaren 26an hasik da.

**SASKIBALOIA/ARRASATE**

Arrasateko Kirol Proiektu aren sorreraren hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu tako ekitaldien barruan, mart tzenean, hilak 20, Donostiako Cafes Aitona eta Tau Ceramica Baskonia saskibaloi taldeen arte ko lagunarteko partidua jokatu ko dute Arrasateko Iturripe kirol degian, 17:30etan. Gasteiztarra ACB ligako sailkapeneko 4. tokia dira eta Cafes Aitona Askatuak berriz, LEB-2 ligan azkenak ditu gu. Donostiarrek jaitsierako play-offak jokatu beharko dituzte.

**FUTBOLA/ARETXABALETA**

UDA taldeak azken lau parti duak irabazi ditu jarraian Azken jardunaldian Intxau rrondo taldeari irabazi zioten Enrique Nietoren mutilek, 2-3ko emaitzarekin. Sailkapenean 7 tokian dira atxabaltarrak. Dome kan Elgoibarren aurka jokatuko dute Ibarran, 16:30ean. GOITB partidua eskeiniko du domekan 20:00etan.

**TENISA/BERGARA**

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatutako aurtengo kirol zirkuitua aurrera doa. Oraingo astebukaeran, Bergaran jokatzen ari diren tenis txapelketako final zortzirenak jokatuko dituzte domekan Labegaraietako Kirol degian, 9:00etatik aurrera. Dato rren zapatuan, hilak 24, final-laur denak izango dira, martxoaren 25ean finalerdiak, eta finala berriz, martxoaren 31n jokatuko dute.

**Podiuma**

# Maider Unda | BORROKA LIBREAN TXAPELDUNA |


Maider Unda Euskadiko eta Espainiako txapelduna da. XABI URZELAI

**Kiroletan denetarik aurkitu dezakegu. Milioika pertsonak zure gola ohiukatzea, edo alderantziz, Euskadi eta Espainiako txapelduna izan, eta batere oihartzunik ez izatea. Onerako ala txarrerako (berak ere ez dauka argi) Maider bigarren adibidean sar dezakegu. 23 urteko neska hau baserrian bizi da, Olaetan, eta lan ere bertan egiten du.**

**Olaetako emakume bat borroka libreko txapeldun?**

(Barreak) Txikitan hasi nintzen mota honetako kirolak praktikatzen. Otxandion ikasten nuenean irakasle batek sanboa irakatsi zigun.

**Barkatu, sanboa?**

Judoaren antzerakoa da, baina beste ezaugarri batzuekin. Esan bezala, sanbo egiten hasi nintzen, baina borroka libreak irtera gehiago zeuzkan eta aldatu egin behar izan nuen. Entrenatzen jarraitu nuen, baina emakumezkoek arazo asko izaten ditugu borroka libreko txapelketetan parte hartzeko, pisu gutxi izaten baitira, baina 1998an 68 kilotik beherako modalitatea jarri zuten, eta aurkezteko esan zidaten.

**Aurkeztu eta irabazi.**

Bai, eta ez nuen espero. Kanarietan egunero bi aldiz entrenatzen duen neska bat dago, eta Andaluzian ere badira beste bi neska asko entrenatzen dutenak. Nik denboraldi batean kirol hau praktikatzeari utzi egin nion, eta orain entrenatu ere astean hirutan egiten dut, beraz ez nuen espero.

**Azaldu apur bat zer den borroka librea.**

Borroka libreko proba bat puntuen arabera irabazi edo galtzen da. Kontaktu askoko kirol bat da, eta orokorrean esanda aurkaria lurrera bota eta bere bi sorbaldek lurra ikutzea da helburua. Horrez gain, teknika askoko kirol bat da, ez baita erraza pertsona bat lurrera botatzea. Bizkortasuna, indarra eta teknika beharrezkoak dira.

**Zeintzuk dira zure helburuak?**

Nik borroka librea kirol apur bat egitearren praktikatzen dut. Ez daukat helburu zehatzik, eta niretzat *hobbie* bat da. Baina txapelketetara gustura joaten naiz, irabazteko asmoz.

**Ametsen bat izango duzu.**

Nere helburua ez da munduko txapelduna izatea, baina gustura hartuko nuke parte Europa mailako txapelketa batean.

**Lastima kirol olinpiko ez izatea.**

Bai, hurrengo Olinpiadetarako kirol olinpikoa izango da. Mediterraneoko jokoetan izango gara, hori esan digute behintzat, eta entrenatzen dugunean ere Olinpiadetarako ari garela esaten digute.

**Beraz, Atenasen ikusiko zaitugu.**

Horretarako lan asko egin behar da, eta hemen ere gauzak asko aldatu behar dira. Lau urte falta badira ere Atenasen 27 urte izango ditut, eta borrokan egiteko adin oso aproposa da. Denborak esango du.

**Dietarik egiten al duzu?**

Egin beharko nuke (barre). 75 kilo dauzkat, eta txapelketetan parte hartzeko 68 kilo baino gutxiago izan behar ditut, beraz atera kontuak. Gainera oso jatun ona naiz, eta txapelketarako pisatu eta gero kirolari guztiok jan besterik ez dugu egiten.

**Baserrian lan egitea entrenamendu ona al da?**

Askotan lan gogorra izaten da, eta ofizina batean lan egitea baino mesedegarriagoa izango da, baina borroka librean aritzeko beste motatako entrenamendu bat behar da

**Etxean izaten al duzu borrokarako gogorik?**

Ez, (barreak) neba zaharrago bat daukat, eta harek nik baino indar gehiago dauka beraz, galtzen irtetzeko hobe borrokarik ez egitea. Nire entrenatzaileak jasotzen ditu jaso beharrekoak.

XABI URZELAI

> **"Borroka librea kontaktu askoko kirola da. Bizkortasuna, indarra eta teknika ona izatea beharrezkoa da"**

> **"Lau urte falta badira ere, Atenaseko Joku Olinpikoetarako 27 urte izango ditut, borrokan egiteko adin oso aproposa"**

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Koldo Lamikiz
## Txirrindularia


Amalio Galan Europako txapeldunorde izan zen.

**Lamikizek zazpi aldiz irabazi zuen Gorlako txirrindulari igoera. Espainiako beteranoen txapelketa ere eskuratu zuen lau bider**

Zalantzarik gabe Gorlako erregea izan da Koldo Lamikiz. 1982tik 88ra bitartean Gorlako Txirrindulari Igoerako irabazlea izan zen, beteranoen mailan. 1981ean hartu zuen parte aurreneko aldiz, eta orduan 3. postuan izan zen helmugan. Bere azken partaidetzan, berriz, 89an, bigarrena izan zen, Javier bere anaia gazteenaren atzetik. Hiru anaiak (Josu, Koldo eta Javier) txirrindularitza zaleak izan dira. Koldo 13 urte zituela hasi zen bizikletan ibiltzen; "garai hartan, Arteagatik Gernikara, bizikletaz joaten nintzen eskolara. Gero, 17 urterekin, Arrasatera etorri nintzen ingeniaritza ikasketak egitera eta 10 bat urtez ez nuen bizikleta hartu". Mallorcan soldadutza egiten ari zela, berriz ere ekin zion eta, handik gutxira, amateurren mailan lehiatzen hasi zen; "ni baino gazteagoak ziren txirrindulariekin ibili nintzen, tartean Fede Etxabe, Julian Gorospe edo Arsenio Gonzalezekin. Afizionatuetan ibiltzea *hobbie* moduko bat zen niretzat eta ez nuen lasterketarik irabazi".

Betaranoetan, ordea, palmares bikaina dauka; "gutxienez 35 urte izatea derrigorrezkoa zen beteranoetan parte hartzeko eta oso ondo geratzen nintzen. Egia esateko, konpetitzeari lagatakoan hasi nintzen benetan ziklismoaz gozatzen". Espainiako txapelketa lortu zuen lau aldiz, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelduna ere izan zen eta Soria, Menorca eta Reuseko itzuliak irabazi zituen 1980ko hamarkadan.

Gaur egun Bergaran bizi da eta Aretxabaletan egiten du lan, Aurrelan enpresan. Zikloturista irteeretan parte hartzen jarraitzen du ahal duen bakoitzean. Berak esaten duen moduan, "osasunak laguntzen didan bitartean, bizikletan ibiltzen jarraitzeko asmoa daukat". /E.M.

> ***"Konpetitzeari lagatakoan hasi nintzen benetan ziklismoaz gozatzen. Orain zikloturista irteeratan parte hartzen dut"***


Koldo Lamikiz • Arteaga • 1948



# Nire Pronostikoa

TXUS ARANBURU / Aloña Mendi senior eskubaloi taldeko entrenatzailea

Reala eta Alaves taldeen arteko euskal derbian donostiarrek ezin dute hutsik egin, zulotik ateratzeko gero eta partidu gutxiago geratzen direlako. Nire ustez, Realak irabaziko du, gasteiztarrak nekatuta etorriko dira eta. Bestalde, Athletic etxetik kanpo ez dabil oso ondo, baina ea, gutxienez berdinketa lortzen duen Zaragozan. Eta Osasunari dagokionez, badirudi sasoitsu direla. Beraz, Malagari irabazteko gauza izango direla uste dut. Azkenik, Aloña Mendik Zestoa liderraren aurka jokatuko du. Berdinketa ez litzateke emaitza txarra.

**Astebukaera honetako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Reala | 2 | Alaves | 1 |
| B/ | Zaragoza | 1 | Athletic | 1 |
| C/ | Osasuna | 2 | Malaga | 1 |
| D/ | Zestoa | 1 | Aloña Mendi | 1 |


Goienako kanpo
produkzioak
Gure unitate ibiltaria zure esku
Jaialdiak
Antzerkiak
eta musika
Hitzaldiak,
batzar orokorrak,
Kirolak:
futbola,
pilota,
eskubaloia,
saskibaloia
BATZAR OROKORRA
Aurrekontua eskatu
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
Merkataritza saila: Nafarroa etorbidea, z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • publi@goiena.com

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko martxoaren 16a

Kultura eta Aisialdia

Martxoaren 16tik 23ra





GOIO ARANA

## Bailarako hiru bertsolari txapelaren bila

Entzuleengan alaitasuna, atsekabea, maitasuna, poza, beldurra, errukia, haserrea... Horiek eta beste hainbat emozio eragin beharko dituzte Debagoieneko ordezkariek. Aurten Ainhoa Agirreazaldegik, Joseba Lasagabasterrek eta Ander Lizarraldek, egon seguru goian utziko dutela Debagoiena. Komunikazioaren legeetan harilkatutako pieza onak egingo dituzte hiruek, ez dudarik izan. /14

Argitalpenak | **'Bidegileak'** Ibildumako atal berriak kalean

# Hiru debagoiendar euskaltzaleren obrak

**Bidegileak" bildumaren 18, 19, 20 eta 21. zenbakiak kaleratu berri ditu Eusko Jaurlaritzak. Hamasei pertsona jakintsu eta ospetsuren bibliografiak bildu dituzte Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratu dituen liburu sorta horietan.**

Horietako batean, bi arrasatearren bibliografiak bildu dituzte: Jokin Zaitegirena eta Sebero Altuberena. Bi egile horienekin batera, Jon Mirande eta Luis Villasanterenak ere badakartza sorta honek. Beste sorta batean, Justo Garate bergarararren bizitza eta lanari buruzko zehaztasunak bildu dituzte. Sebero Altube eta Justo Garateren bibliografiak bi debagoiendarrek idatzi dituzte: arrasatearrarena, Josemari Velez de Mendizabal arrasatearrak eta bergararrarena, berriz, Jerardo Elortza oñatiarrak. Jokin Zaitegirena Pako Sudupek egin du eta Luis Villasanterena Elixabete Perez Gazteluk.

**OSPE HANDIKO EUSKALTZALEAK**

Ospe eta jakituria handiko idazle, ikertzaile, hizkuntzalari eta euskaltzaleak dira argitaratu berri dituzten liburuxketako pertsonaiak.

"Bidegileak" bildumaren 18. atalean, atzerriko lau euskaltzaleren bibliografiak jaso dituzte; 19. atalean, ostera, euskal kulturaren lau sustatzailerenak; 20.ean, euskararen itzal handikorenak eta 21.ean euskara zabaldu dutenenak.

Sebero Altube, Jokin Zaitegi eta Luis Villasanterenak 20. zenbakian jaso dituzte eta Justo Garaterena, berriz, 21.ean.




**Zaitegi, Altube eta Garateri buruzko "Bidegileak" bildumako bibliografiak.**



**Josemari Velez de Mendizabal.**



**Jerardo Elortza.**

**BI ARRASATEAR ETA BERGARAR BAT**

Justo Garate (Bergara, 1900-Argentinako Mendoza, 1994) ospe handiko mediku eta kultura gizona izan zen. Gaztetan alde egin zuen Argentinara. Kultura kontuak aztertu eta artikuluak eta liburuak idatzi zituen.

Sebero Altube (Arrasate, 1879-Gernika, 1963) hizkuntzalari, filosofo eta literaturgilea, Euskaltzain oso izan zen. Musikarako zaletasun handia izan zuen eta Gernikako bandan ere jardun zuen. Gernikako alkate izatera heldu zen.

Jokin Zaitegi (Arrasate, 1906-Donostia, 1979) euskal idazle, irakasle eta apaiza. Prosa eta olerkia landu zituen eta itzultzaile ere izan zen. Erbestean, Guatemalan, "Euzko gogoa" aldizkaria sortu zuen.

**WEBGUNEAN ESKURAGARRI**

Arduradunen hitzetan, euskararen alde hainbat mailatan lan egin dutenei egin dieten omenaldia da "Bidegileak" bilduma. Honenbestez, euskara sendotzen, zabaltzen eta normalizatzen saiatu diren Euskal Herriko eta kanpoko euskaltzaleen bizitza eta obrari buruzko datuak jasotzen ditu.

Bilduma honetan, euskararen gaineko berriak ikuspegi historiko, sozial eta kulturaletik landuta agertzen dira. Gazteentzat eta euskaltegietan aritzen direnentzat egina da bilduma, euskara errazean, modu apainez eta argazkiekin azaldutakoa.

Eusko Jaurlaritzak 1987an ekin zion bilduma honi eta orain arte 21 karpeta argitaratu ditu, guztira, ehundik gora liburuxka. 1993an argitaratu zuen bosgarren karpetan, Koldo Eleizalde bergarar euskaltzale, pentsalari eta zientzialariaren gainean idatzi zuen J.J. Granja Pascualek.

Aurten beste lau sorta kaleratuko dituzte eta bilduma osoa interneten eskuragai jarri nahi du Jaurlaritzak. Orain arte kaleratutakoak www.euskadi.net webgunean aurki ditzakegu.

ENEKO AZKARATE

Nire aukera

## Carlos Murillo

### Arrasateko Ederra tabernakoa



Niños Mutantes taldearen azken diskoa nire gogokoenetarikoa da. *Otoño en Agosto* du izenburua. Ez nuke jakingo esaten zein abesti dudan gustukoen; guztiak oso onak iruditzen zaizkit. Niños Mutantes taldea Jaenekoa da, eta pop-rock estiloa jorratzen du. Antzekotasun bat aurkitzekotan, nik Los Planetas talde ezagunagoarekin alderatuko nuke; biek ere pop-a egiten dute, baina zirkuitu independentean dihardute. Niños Mutantesen lehenengo diskoa ere entzuna dut, eta bigarren honek heldutasun handiagoa adierazten du. Oso musika alaia da. Nire ustez, Niños Mutantes Espainiako pop talde onenetariko bat da.

### 'OTOÑO EN AGOSTO' Niños mutantes




LEIRE KORTABARRIA

Argitalpena | **'Debagoiena: aurrera dihoan lurraldea. Estatistika Eskolarren 25 urte'.** Gizabidea Fundazioa

# Bailarako hezkuntzaren bilakaera aztergai

**Debagoiena: aurrera dihoan lurraldea. Estatistika eskolarren 25 urte" izenburuko liburua argitaratu du Gizabidea Fundazioak. Bailarako hainbat ikastetxe batzen dituen Arizmendi ikastolako arduradunek, hau da, Felix Ormaetxea zuzendariak eta Joxerra Zubizarretak komunikazio arduradunak aurkeztu zuten liburua joan zen eguenean.**

Liburu historiko honetan, Hezibidek azken 25 urteotan egin duen lana bidu dute. Bestalde, urte hauetan bailarak izan duen demografiaren bilakaera, kooperatiba mugimendua eta testuinguru sozio-politikoa aztertu dituzte. Hori dena lantzeko, bailarako hezkuntza sistemaren gainean egindako estatistikak erabili dituzte. Estatitistika horietan, eskola zein gizarte arloko datuak jaso dituzte.

Arizmendi ikastolako (lehengo Hezibide), Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Zientzia Fakultateko eta Gizabide Fundazioko hainbat lagunen artean osatu dute liburua. 178 orrialde ditu eta euskaraz eta gazteleraz idatzita dago. 1.000 ale argitaratu dituzte eta 1.400 pezetaren truke jarriko dute salgai.

Honako bost ataletan banatu dute liburua: Kokapena, Hezkuntza sistema, Unibertsitatea Debagoienean, Debagoiena eta Ikasleen bilakaera 25 urteotan. Horretaz gain, beste bi eranskin ditu: Zentro eskolarrak eta Eskola estatistikak Debagoienean. Debagoieneko hezkuntza sistema sakon aztertzen da liburu honetan. Baita ikasleen eta euskararen bilakaera ere. Demografiaren bilakaera da liburuak aztertzen duen beste arlo bat. Estatistiketatik atera ditzakegun bi ondorio nagusi honako hauek dira: batetik, azken 25 urteotan euskarazko irakaskuntzak izugarrizko igoera izan duela eta, bestetik, jaiotze tasak izan duen bilakaera negatiboa.

Lanaren arduradunek azpimarratu zutenez, "Debagoienean elkarlanerako joerak nabariak dira eta optimizazioaren bidetik atera dira aurrera hainbat egitasmo. Hori da Arizmendiren zein bailarako beste hainbat talde edo elkarteren kasua".



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko martxoaren 16a

# Martxoa: 16-23

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ARRASATE**

> **Algara taldearen** *Un follon de testamento* antzerki lana zapatuan, hilak 17, Amaia antzokian, 22:00etan.

**EIBAR**

> **Eibarko XXIV. antzerki jardunaldiak. Salvador Collado**ren *Eso a un hijo no se le hace*, egubakoitzean eta zapatuan, hilak 16 eta 17; **Txalo** taldearen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona...*, domekan, hilak 18. **Teatro de Malta**ren, *El orgullo de Sir Gay* astelehenean, hilak 19 eta **Teatro La quimera**ren *El buscon* martxoaren 21ean. Emanaldi guztiak Unibertsitate Laboralean, 20:30etan. Bestalde, **Tricicle** eta **Tentazioak** taldeen *Ez da hain erraza* izango da martitzenean, hilak 20, 19:30etan euskaraz eta 22:00etan gazteleraz.

**ELORRIO**

> **Producciones Yllana** taldearen *Rock & clown* antzerki lana hilaren 23an Arriola aretoan, 22:30etan.

## Musika

**BERGARA**

> **Sen, Selektah Kolektiboa, DJ Guetto Sound System** eta **DJ Talo** egubakoitzean, hilak 16, Jam aretoan, 22:00etan.

> **The Young Gods** martitzenean, hilak 20, Go-Jam aretoan, 21:00etan.

> **Apocalyptica** eguenean, hilak 22, Jam aretoan, 22:00etan.

**OÑATI**

> **Bonnie Prince Billy** eta **Anari** domekan, hilak 18, Gaztelekuan, 20:00etan.

> **Mikel Telleria** hilaren 23an Gaztelekuan, 22:30etan.

**ELORRIO**

> **Benito Lertxundi** egubakoitzean, hilak 16, Arriola aretoan, 22:30ean, **Korrika Kulturala**ren barne.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Diana Orbe** margolariaren erakusketa Toki-Eder kafetegian, martxoaren bukaera arte.

> **Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken herbarioa** Monterron jauregian, 19a arte.

> **Gure-Leku** tabernak deitutako margo lehiaketara aurkeztutako lanak tabernan daude ikusgai.

**ARETXABALETA**

> **Copreciri buruzko** argazki erakusketa Duranako erakusketa txokoan.

**BERGARA**

> **Oihana Garitanoren** pintura eta argazki erakusketa kultura etxean, martxoaren 18a arte.

> ***Kolonbia. Globalizazioaren isladak*** izenburuko erakusketa Nahikari tabernan, martxoaren 25era arte.

**EIBAR**

> **Aitor Larrañaga** zarauztarraren margo erakusketa Portalean, martxoaren 18a arte.

> **Esperanza Zabalaren** margo erakusketa Portalean, martxoaren 18a arte.

## Lehiaketak

**BERGARA**

> **IV. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Lehiaketan, nahi duten artista guztiek parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Estiloa eta teknika librea izango dira. Marko barik, euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta 146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an egingo da, zezenketako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

